

Landareak

JAKOBA ERREKONDO



JAKOBA ERREKONDO

Garomena

Garoak lagun izan ditugu historia osoan, baita aurretik ere. Babesa, beroa eta gozotasuna eman dio etxean bizi izan den guztiari. Animalia guztion azpitarako inaurkin prezia-tuena izan da, eta da. Simaurrik gozoena egiten du eta baratza, soro eta sagastietan barrena joan-etorri bat eginda, urte osorako osasuna ekarriko digu ahora. Hortik garoaren gurtza. Argazkiko udaberri hasierako San Joan iratzearen puja berri segailak, *Osmunda regalis*, loratzen ari dira, oraintxe, urteko egunik luzeenetan. Zorrrak zor, haren zarbak, lizarra eta elorriarekin batera, solstizioan atarrietara ekarriko ditugu...

Gatzagitan

MENDAK esnea gatzatzea galarazten du. Gatzatzea, baina, esnari iraunarazi eta jaki on eusteko bide izan da usu. Ziabelarra, *Galium verum*, aipatu berria dugu hementxe; landare ugari baliatu izan da, ordea, lan honetarako.

Mikatzetik osatuta dauden landare gehienek ia atal guztiak esnea ziatu eta gatzatzeko gai dira. Bitxilorea eta tankerakoak biltzen dituen konposatuen familiakoen lore-talamo edo multzoak dira ezagunenak, kardu askorenak tartean.

Izenak ederki asko adierazten dion lubeazuna da bat, *Centaurea calcitrapa*. Haren loreak gatzagi izan dituen gatzak aparteko zaporea hartzen du.

Negu partean hostoen zurtoin lodikoteak jaten dizkiogun baratz kardua, *Cynara cardunculus*, loreak ere gazta bidean jartzen du esnea. Genero bereko *Cynara scolymus*, alkatxofaren loreek ere bide beretik darama ur zuria.

Konposatuak ez diren beste familia batzuetako landare gatzagiak ere badira. Esneak esnari tiraka. Izerdia esnetsua duten landare gehienek isurkin hori toxikoa da eta ukitzen duen oro ihartzen du. Karatxoak eta abar gatzeko erabilia, kontuz manciatu behar da, zauriak, begiak... erre egiten baititu, baita esnea ere. Esne-belarrak deitzen diren *Euphorbia* generokoak dira latex hau duten ezagunenak, *Euphorbia helioscopia* ohikoena. *Ficus carica*, pikondoaren izerdi lodiak bezala, loreak ere legar dira.

Garratzak diren landareek ere gogortzen dute esnea, barrabasak edo basoko mingotsak, *Oxalis acetosella*, adibidez. Ameriketara, sugandilen isatsa ere erabili izan da gatzagi.

*Cynara scolymus*.

152

Europar porrua garesti dabil. Gutxitxo ekoizten da, nonbait, eta eskaintza mugatua denez prezioei eusten dioten barazki bakanetako bat da. Ongarri lepo dagoen lurra eta inguru hezea eskatzen duenez ez da porrua edozein tokitan egin daitekeen horietakoa. Porru hazia guretzako eskaskeriaren bikia da, ia nahi gabe ere etortzen delako, Euskal Herri atlantikoan, noski. Geure kulturako gutzia eta luxu handienetako bat. Hemendik kanpo, ondo ordaintzen den horietakoa da porrua. Lehengo astean, handizkako merkatuetan gutxien 152 euro ordaindu da tona, Alemanian.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.